

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure aplikazio berria jendeari helarazteko modurik onena publizitatea da, jendeak aplikazio berria kontuan har dezan.

Nagusiki, telebistako publizitatearekin hasia pentsatu dugu, EITB bezalako herri-kateetan, adibidez; izan ere, hori baita gure kontsumitzaileengana iristeko modurik eraginkorrena eta zuzenena, bereziki Euskadiko ikasleak eta haien gurasoak izango baitira gure bezeroak, aplikazioak Euskal Herriko unibertsitateei eta graduei buruzkoa baita.

Gure bezeroekin elkar-eragiteko, funtsezkoena webgunea eta aplikazioa izango dira, gure aplikazioari buruzko informazioa eskura dezaten.

Gure aplikazioaren webgune ofizialean informazio guztia agertuko da, tresna nagusia da, bezeroek zalantzak argitzeko aukera izan dezaten, baina gure posta elektronikoa ere eskura izango dute, gurekin harremanetan jartzeko, webgunean agertzen ez den edozein zalantza argitzeko.



Egunkaria ere aukera ona da, egia da kanal hau ez dela oso erabilia nerabeen artean, baina helduek edo haien gurasoek bai kontsumitzen dute, eta hauek gero seme-alabei transmititu diezaiekete. Beraz, El Correo egunkariarekin ere elkarlanean arituko gara.

EL CORREO